



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Arrunta
Eguna: 2022.05.25
Ordua: 18:00
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2022/04/28ko akta aho batez onartu da.

2. ELIKADURA DINAMIZATZAILEA KONTRATATZEKO ELKARLAN HITZARMENARI ATXIKITZEKO ONESPENA ETA ORDEZKARI IZENDAPENA.

Alkateak eta idazkariak azaldu dute Bortziriak-Malerreka-Bertizarana inguruan elikadura dinamizatzaile bat kontratatzeke lankidetzaren hitzarmenaren oinarriak. Hitzarmenaren helburua da erakunde sinatzaileen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren baldintzak zehaztea, Bortziriak-Malerreka-Bertizaranaren garapen sozioekonomikoa ahalbidetuko duten ekintzak eta proiektuak

diseinatu, planifikatu, programatu eta gauzatzeko; horretarako dinamizatzailearen figura beharrezkoa izanik.

Egin nahi diren jarduerak egiteko, hitzarmena sinatzeaz gain, urtero aportazio ekonomiko bat egitea ere dakar sortuko diren gastuei aurre egiteko. Gainera, udalek jarraipen eta batzorde erabakitzailean parte hartzeko ordezkariak izendatu beharra dute.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Elikadura dinamizatzaile bat kontratatzeko Bortziriak-Malerreka-Bertizarana garatzeko lankidetzaren hitzarmenera atxikitzea.
- 2.- Jarraipen eta batzorde erabakitzailean parte hartuko duen edo duten udal ordezkariaren izendapena hurrengo osoko bilkuran adosteko atzeratzea.
- 3.- Akordio honen jakinarazpena CEDERNA-GARALUR elkarteari jakinaraztea.

3. BORTZIRIETAKO EUSKARA PROBEN EMAITZAK ETA IZANGAIEN SALBUESTE SISTEMARA ATXIKITZEA.

Idazkariak azaldu ditu Bortzirietako euskara proben emaitzak eta izangaien salbueste sistemaren nondik norakoak. Izan ere, 2022ko apirilaren 1ean egindako Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzailean sistema hau martxan jartzea adostu zen, horrela aldi baterako kontratazioak egiteko euskara proben kudeaketa arintzeko.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Euskara proben emaitzak eta izangaien salbueste sistema onartzea.
- 2.- Akordio hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

4. ARANTZAKO HIRU-LURZORUAN OSTATU-TURISTIKOAK EGITEKO OBRA LIZENTZIAK ETETEA.

Arantzan eta, zehatzago, bere hiri-lurzoruan ostatu-turistikoen eskaintza berriak gainezka egiten ari dira eta, gazteentzako lehen etxebizitzaren eskaintza ezarekin batera, udalerraren despopulazioa areagotzen ari da.

Hiri-lurzoruan etorkizuneko ostatu-turistikoen erabileren ezarpena arautzeko helburuarekin, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 70. artikuluan xedaturikoaren arabera,

osoko bilkurak hiri-lurzoruan ostatu-turistikoak egiteko lizentziak etetea proposatzen du. Horrela, haien eraketa edo erreforma aztertu ahal izateko eta behar bertzeko argitasunez eremu horiek definitzeko.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Hiri-lurzoruan ostatu-turistikoak egiteko obra lizentziak etetea.
- 2.- Eteteak gehienez ere urtebeteko indarraldia izanen du, erabaki hau hartzen denetik edo Udal Plana aldatzeko proposamenari hasierako onarpena ematen zaion arte.
- 3.- Udal-zerbitzuei agintzea aipatutako eremuan erabilera horietarako lizentziak emateko prozedurak eten ditzatela.
- 4.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean argitaratutako egunkarietan argitaratzea.
- 5.- Ohartaraztea erabaki honen kontra errekurtsio hauetako bat aurkez daitekeela, hautara:
 - a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzendua Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari, bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
 - b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.
 - c) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

5. 2022KO OIHAN ENKANTEAREN KUDEAKETA.

Idazkariak adierazi du 2022ko maiatzaren 23an epea bukatu zela oihan enkantean parte hartzeko proposamenak egiteko. Horri dagokionez, adierazi du enpresa batek aurkeztu dituela gutunazalak. Halaber, egoitza elektronikoan izandako arazoak ikusirik eta bertze enpresen berririk izan ez denez, idazkariak aipatu du seguruenik hori izan dela aurkezturiko proposamena bakarrak.

Horrela bada, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 143. artikuluan xedaturikoa ikusirik eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 96. artikuluan xedaturikoa jarraikiz, idazkariak azaldu du dokumentazio administratiboaren gutunazala ireki daitekeela.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- 2022ko oihan enkantearen kudeaketarekin jarraitzea.

6. ALKATEAREN EBAZPENAK.


36/2022 eta 56/2022 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:30 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.


ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte